

X. SOZIOLOGIA ETA ZIENTZIA POLITIKOAREN EUSKAL KONGRESUA

**ETENGABEKO ALDAKETAN DAUDEN GIZARTEAK: ERREALITATE
SOZIALA ETA ERRONKA ZIENTIFIKOA**

**2015eko irailak 3-4
Euskal Herriko Unibertsitatea
(Bilbo)**



euskal
soziologia eta
zientzia
politikoaren
elkartea



asociación
vasca
de sociología
y ciencia política

**Informazio gehiago:
www.avsp.es
<http://on.fb.me/1yy7zba>**

NOIZ

2015eko irailak 3-4

NON

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo

KUOTAK

Bazkideak: 40€

Orokorra: 55€

Ikasleak eta langabeak: 45€

EGITURA

Osteguna 3

GOIZEZ	Biltzarkideei harrera eta akreditazioa; Kongresuaren irekitzea eta hasiera emateko hitzaldia
GOIZEZ / ARRATSALDEZ	Lantaldeak; Mahai-ingurua: “Komunikabide ohikoak eta barriak: informazioa helarazteko modu anitzak”

Ostirala 4

GOIZEZ / ARRATSALDEZ	Lantaldeak; “Eraikitzen ari garen Soziologia eta Zientzia Politikoa: Soziologia eta Zientzia Politikoetako graduiko ikasleen topaketa gunea”
ARRATSALDEZ	Kongresuaren bukaera: Lunch-a

DATAK

MAIATZAK 15	Abstractak bidaltzeko epea
MAIATZAK 22	Koordinatzaileek abstractak onartu dituzten erantzuteko epea
EKAINAK 30	Amaierako testuak bidaltzeko epea

LANTALDEAK

TALDEA	IZENA	KOORDINATZAILEA
1	Lana, enpresa eta teknologia berriak	Carmen Sabater Luis Belaustegi
2	Gizarte-bazterkeria eta hirugarren sektorea	Imanol Zubero Ekhi Atutxa Jezabel Lucas
3	Komunikazioa eta kultura	Iziar Basterretxea Jone Goirizolzarri
4	Migrazioak	Maite Fouassier María José Martín
5	Hiri-soziologia	Marian Ispizua Amaia Izaola
6	Egungo erronka teoriko berriak	Josetxo Beriain Celso Sanchez Jose María Pérez Agote
7	Metodologia eta ikerketa soziala	Beatriz Otero

		Nerea Linaza
8	Generoaren soziologia	Raquel Royo Estíbaliz de Miguel
9	Nazioarteko harremanak: gatazkak, garapena eta lankidetzak	Leire Moure Felipe González
10	Identitatea, hizkuntza eta nazionalismoa	Amaia Agirre Iker Iraola
11	Eragileak, jarrerak eta portaera politikoak	Carmelo Moreno Catalina Uztanga
12	Administrazioa eta politika publikoak	Sergio Pérez Alberto de la Peña
13	Landa-soziologia eta elikadura-sistema	Beatriz Izquierdo Guadalupe Ramos
14	Biztanleria eta osasuna	Julia Shershneva Iraide Fernández
15	Soziologia juridikoa	José Ramón Bengoetxea Iker Barbero
16	Hezkuntzaren Soziologia	Elisa Usategi Ana Irene del Valle
17	Partaidetza, demokratizazioa eta aldaketa politikoa	Jon Azkune Zuriñe Rodríguez

IZENA EMATEKO

Proposamenak eta abstractak bidaltzeko helbidea ([adierazi zer lantalderi](mailto:avsp@euskalnet.net) atxikitzen zaion):
avsp@euskalnet.net.

Laburpenak 500 hitz izango ditu, gehienez ere, eta [formatu](#) honi egokituko zaio:

- Lan enpirikoetan, laburpenak atal hauek eduki beharko ditu: ikergaia eta abiapuntuko hipotesia; datuen deskribapena, biztanleriaren ezaugarri esanguratsuak, datuak eskuratzeko erabilitako metodoak eta analisi prozesuak barne hartuta; emaitza nagusiak edo ondorioak.
- Lan teorikoetan, laburpenak alderdi hauek jasoko ditu: ikergaia edo abiapuntuko premisak; jarraitutako argudiaketaren eskema zehatza; ondorio nagusiak.
- Proposamena Kongresuaren zer lantalderi atxikitzen zaion adierazi beharko da.

SOZIOLOGIA ETA ZIENTZIA POLITIKOETAKO GRADUKO IKASLEEI ZUZENDUTAKO GUNEA

Aurtengoan, Soziologia eta Zientzia Politikoetako graduko ikasle direnek, bertaratzeko edota lanak (irakasgaietakoak, GAL-a, etab.) aurkezteko, elkarrizketa eta ezagutzen elkartrukea erraztuko duen gunea izango dute.

- Lanen bat aurkeztekotan, izen ematea abstract-a edota testu osoa bidali gabe egin izango daiteke.
- Lan bakoitzak ezingo ditu 5 sinatzaile baino gehiago izan.
- Gehiengoz, egile bakoitza 2 lanetan azaldu ahal izango da.
- Izen emateek urrats berberak jarraituko dituzte, hau da, avsp@euskalnet.net helbidera zuzendu beharko dira, *“Eraikitzen ari garen Soziologia eta Zientzia Politikoa: Soziologia eta Zientzia Politikoetako graduko ikasleen topaketa gunea”* adieraziz. Epe muga: 2015eko ekainaren 30a.
- Egile eta baita egilekide guztiek ziurtagiria lortzeko aukera izango dute, baldin eta kongresuan inskribatuta badaude.

ORDAINTZEKO ERA

Diru-sarrera edo banku-transferentzia, Soziologia eta Zientzia Politikoaren Euskal Elkartearen izenean eta **izena eman duen pertsonaren izena adierazita**, bi kontu hauetakoren batean:

BBK: 2095 0218 84 2000191049

Euskadiko Kutxa: 3035 0064 28 0640025799

Abonu-agiriaren kopia bat bidaliko zaio, izen-ematearen datuekin batera, SZPEEri (eskaneatuta, e-postaz edo posta arruntaz):

Asociación Vasca de Sociología y CC.PP
Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkartea
Hurtado de Amezaga, 27- 9., 9. saila, 48008 Bilbo.
Tel.: 94 410 07 40

avsp@euskalnet.net

KOMUNIKAZIOAK AURKEZTEKO ARAUAK

Testu osoak: 2015eko ekainaren 30era arte

Kongresuaren Akten edizioan soilik sartuko dira eskatutako epean eta formatuan bidalitako testuak.

Harremanetarako egileak eta egile kopurua

- Egile batek baino gehiagok egindako proposamenetan, harremanetarako egile bat adieraziko da. Sinatzaileetako edozein izan daiteke, egile-ordena aintzat hartu gabe.
- Harremanetarako egilea lantalde eta Kongresuko antolatzaileekiko solaskidea izango da.
- Komunikazio bakoitzak ezingo ditu 5 sinatzaile baino gehiago izan.
- Gehiengoz, egile bakoitza 2 komunikaziotan azaldu ahal izango da.
- Onartutako proposamena egitarauan agertzeko, harremanetarako egileak Kongresuan izena emanda egon behar du.
- Egile eta egilekide guztiek komunikazioa aurkeztu izanaren ziurtagiria eskuratu ahal izango dute, baldin eta aurretik Kongresuan izena eman badute.

Testuen formatua

- **Beste kongresu batzuetan aurkeztu ez diren lanak** bidaliko dira.
- **Euskaraz** edo **gaztelaniaz** bidali ahal izango dira.
- Testuek **5.000 eta 8.000 hitz** inguruko luzera izango dute grafikoak, taulak, bibliografia eta oharrak barne hartuta.
- Testuaren **lehenengo orrialdean**, honako informazio hau agertuko da:
 - Izenburua, laburpena eta gako-hitzak.
 - Egileen izena eta harremanetan jartzeko datuak.
 - Erakunde-filiazioa: unibertsitate edo ikastegia, saila edo unitatea, hiria eta herrialdea.
 - Posta elektronikoaren helbidea. Korrespondentzia guztia helbide elektroniko horretara bidaliko da. Egile askoko artikuluei dagokienez, aldizkariarekiko korrespondentziaz arduratuko den pertsona adieraziko da.
- Letra-mota: Times New Roman 12, 1,5eko lerroarte, justifikatuta.
- Ahal bezain **ohar** gutxi egingo dira, eta orri-oinean jarriko dira.
- **Grafikoak** eta **taulak** zenbakitu behar dira, eta dagokien izenburua jarri behar zaie. Irudi gisa txertatuko dira, testuan. Ez dira bidali behar testuaren barruan txertatutako kalkulu-orrietako programen fitxategiak (Microsoft Officeko Excel erakoak). Testu-

prozesadoreek “txertatu irudi gisa” funtzioa eskaintzen dute, kalkulu-orriko programa batetik datorren grafiko edo taula bat txertatzeko.

- Lanak **OpenOffice Writer (odt)** edo **Microsoft Word (doc)** formatuan bidaliko dira.
- **Aipuak** honako arau hauen arabera idatziko dira:
 - Aipuak testuan agertuko dira, eta saihestu egingo dira bibliografia-funtzio hutsa duten oin-oharrak.
 - Parentesi artean emango dira egilearen abizena, urtea, eta, hala behar bada, aipuaren orrialdea edo orrialdeak; esate baterako: (Boudon, 2004: 73). Hitzez hitzezko aipuak komatxo artean jarriko dira, eta ondoren dagokien erreferentzia jarriko da parentesi artean, non aipuaren orrialdeak nahitaez adieraziko diren; lau lerrotik gorako aipuak izanez gero, testu nagusitik bereizita transkribatuko dira, komatxo artean sartu gabe, eta sangria eta letra-tamaina handituta.
 - Egile beraren bi obra urte berekoak izanez gero, urtearen ondoren letra xeheak jarriko dira, obrak bereizteko; esate baterako: (Boudon, 2004a: 73).
 - Bi egile izanez gero, bi abizenak aipatuko dira «eta» batez elkartuta: (Bowles eta Gintis, 2005); bi egile baino gehiago izanez gero, lehenengo egilearen abizena idatziko da, eta horren ondoren «et al. » (Bowles et al., 2005); nolanahi ere, amaierako bibliografia–zerrendan egile guztiak izendatu daitezke.
- **Erreferentziak** honako arau hauen arabera idatziko dira:
 - Testuan aipatutako lanak bakarrik sartuko dira, eta aipatutako lan guztien erreferentzia emango da amaierako zerrendan.
 - DOI (Digital Object Identifier) edukiz gero, erreferentzia guztiek emango dute amaieran.
 - Egilearen araberrako hurrenkera alfabetikoari jarraituko zaio. Egile beraren erreferentzia bat baino gehiago badaude, urtearen arabera ordenatuko dira. Lehendabizi, egilearen bakarkako erreferentziak sartuko dira; bigarren lekuan, egileak bildutako lanak; eta, hirugarren lekuan, egileak beste egilekide batzuekin egindako lanak.
- **Bibliografia** honako formatu honi egokituko zaio, eta sangria frantsesa aplikatuko zaie erreferentzia guztiei:
 - **Liburuak:** egilearen abizena, egilearen izena, urtea parentesi artean, izenburua letra etzanean, argitalpen-lekua, eta argitaletxea. Hona hemen adibide bat:
 - ✓ López, Antonio (2006) *Sociología*, Madril, Editorial Sierpes.
 - **Liburuaren kapituluak:** Egilea(k) (urtea) “Kapitulua izenburua” in edizio edo bildumaren egilea, liburuaren izenburua (etzanez), argitalpen-lekua, argitaletxea, kapituluaren orrialdeak. Adibidea:

- ✓ López, Antonio (2006) "Sociología del trabajo" in López, A. (ed.) *Sociología*, Madrid, Editorial Sierpes, 50-70 or.
- **Aldizkarietako artikulak:** Egilea(k) (urtea) "Artikuluaren izenburua" in aldizkariaren izenburua (etzanez), alea eta zenbakia, artikularen orrialdeak. Adibidea:
 - ✓ López, Antonio (2006) "La sociología de la acción" in *Revista de Sociología*, 1. alea, 2. zk., 7-36 or.
- **Erakundeek argitaratutako obrak:** Erakundea (urtea) Izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea. Adibidea:
 - ✓ INE (2006) Estadísticas de I+D, Madril, INE.
- **Interneteko artikulak:** Egilea(k) (urtea) "Izenburua" eskuragarri hemen: URL. Adibidea:
 - ✓ López, Antonio (2006) "Sociología" eskuragarri hemen: <http://www.sociologia.org/libros.html>.

BATZORDE ANTOLATZAILEA

Imanol Zubero
 Patricia Campelo
 Ekhi Atutxa
 Beatriz Otero
 Amaia Izaola
 Rafael Leonisio
 Julia Shershneva
 Iraide Fernández
 Jone Goirigolzarri
 Juan Aldaz

Carlo Villarreal
 Jaione Mondragón
 Joseba Azkarraga
 Jonatan García
 Elisa Usategui
 Trinidad Vicente
 Ana Irene Del Valle
 Enrique Antolín
 Marian Ispizua
 Cristina Lavía
 Jezabel Lucas

IDAZKARITZA TEKNIKA

Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarte

Hurtado de Amezaga, 27- 9º, dpto. 9.

48008 Bilbo

Tel.: 94 410 07 40

avsp@euskalnet.net